



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 8a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer kontrol baliatzen dituen Hezkuntza Departamentuak “Hezkuntza etorkizuna da” goi-burupeko iragarkian erreproduzitzen ziren rol sexistak ekidite aldera. M.^a Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko ba al dagoen langabeziaren aurkako neurriei buruzko ebaluazioarik, entitate independenteek egindakorik. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko noiz betetzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak mendetasuna duten pertsonen aitortutakoa. Ana Figueras Castellano andreak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea zergatik urratu duen Nafarroako Gobernuak 5/2010 Legeak ezarritako epea, legea erregelamendu bidez garatzeari dagokionez, eta zergatik ez den kontseilua deitu. José Andrés Burguete Torres jaunak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2010eko maiatzaren 28ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko otsailaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

234.2. artikuluan “korporazioak” jarri ordez “entitate” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Hobekuntza teknikoa, testuak hizpide dituen pertsona juridikoen benetako izaeraren araberakoa.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

234.2 artikuluan “mankomunitateak” kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketan proposatutako “toki entitate” kontzeptuak bere barruan hartzen ditu mankomunitateak, eta, beraz, termino hori erabiltzea errepikakorra eta, ondorioz, desegokia da.

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

234.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“234. artikulua. Beharrezkoak diren eginkizun publikoen azalpena eta horietan aritzea:

3. Aurrekoa gorabehera, titularra kanpoan, gai-xorik edo lanpostua erreserbatzeko eskubidea ematen duen beste administrazio egoera batean badago, edo funtzionario batek betetzeko deitutako lanpostu hutsa aldi baterako bete behar bada, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako eginkizun publikoetan honako hauek aritzen ahalko dira.”

Zioak: Ez da bidezkoa lerrokada hau sartzea idatz-zati horretan, non salbuespenezko egoerak arautzen baitira, eta hor titularrak lanpostuaren erreserba dueneko aldi baterako lanpostu hutsak arautzea.

Lege proiektu honetako 234.1 eta 243. artikuluetako xedapenak ikusita, begi-bistakoa da Nafarroako udal guztiek dutela eskubidea, edozein dela ere bere populazio maila, pertsona kualifikatu bat izateko legeak eta Konstituzio Auzitegiaren epaiak ezartzen dituzten beharrezko eginkizun publikoak beteko dituen. Era berean, populazio maila jakin batera iristen ez diren udal eta elkartei ez baldin bazaie idazkari lanpostua betetzen uzten harik eta beren borondatez elkartzen ez diren arte, oker jokatu da berriro ere lanpostu horien betetzeari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren 130/2009 epaian egiaztatu zenez; izan ere, lanpostu hutsen betetzea, beste behin, batere ziu-rra ez den berregituratze administratiboko prozesu batekin lotuko litzateke, eta, hala, bitarteko idazkari talde bat sortuko genuke berriro.

4. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

235. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“235. artikulua. Plantilla organikoak.

1. Toki korporazioetako plantilla organikoak urtero onetsi behar dira, lehen hiru hilabeteetan, aurreko urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera. Lanpostu bat toki korporazio bat baino gehiagori badagokio, korporazio guztien plantilletan sartu beharko da, elkartearen buru egiten duena zein den adieraziz.

2. Plantilla organikoan adieraziko dira plazen eta lanpostuen ezaugarriak, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea eta hura garatzeko araudia aplikatuz kontuan hartzen direnak barne. Langileak hartzeko prozedurak ezaugarri horietara egokituko dira. Erregelamenduz arautuko da zein izanen den plantilla organikoaren edukia, langileen zerrendaren edukia eta horiek prestatzeko prozedura.

3. Toki entitateek plantilla organikoaren kopia eta langileen zerrendaren kopia igorriko dizkiote Foru Komunitateko Administrazioari, onetsi eta hogeita hamar eguneko epean.”

Zioak: 235. artikulua testuak, orain indarrean dagoenaren berdin-berdina baita, ezartzen du plantilla onetsi behar dela udal aurrekontuak onestean, eta ondorengo edozein aldaketa ere aurrekontuen aldaketen tramiteei jarraituz egin behar dela. Arau horrek Estatuko araudia du inspirazio iturri, plantilla aurrekontuaren bidez onestea eskatzen baitu (Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeko 90. artikulua) edo aurrekontua onesten dela aprobetxatuz (781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 126. artikulua), eta ez du kontuan hartzen Estatuko araudiak eta Nafarroakoak ez dabiltelako plantilla kontzeptu bera. Estatuko araudian, plantilla da aurrekontu-kredituak ezartze aldera egiten den lanpostuen zenbaketa, eta horregatik da aurrekontuaren parte. Nafarroako araudian, berriz, plantilla organikoa Estatuko araudian dagoen lanpostuen zerrendaren baliokidea da; hau da, funtzio publikoaren antolamendu-tresna bat, non, lanpostuen kopuruaz gain, ezaugarriak eta horietan lan egiteko eskatzen diren baldintzak jasotzen baitira.

Plantilla organikoa aurrekontuekin batera onetsi beharra eta plantillaren onespenez nahiz alda-

ketak aurrekontuaren prozedura berari jarraitu beharra, jendaurrean jartzeko beharra barne dela, ez da logikoa eta ez da beste inongo administrazio publikotan gertatzen. Askozaz ere arrazoizkoagoa da toki entitateetako plantillak onesteko araubidea beste administrazioetan dagoenaren bera edo bertsua izatea, Foru Komunitatekoan dagoenaren bertsua zehazkiago, eta hori da zuzenketa honekin proposatzen duguna; erregelamenduz gara dadila gero, toki entitateetan ez dadin egon gaur egun dagoen nahasmendua plantillen edukiarri buruz.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

235.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Toki entitate bakoitzak bere plantilla organikoan adierazi beharko du idazkari nahiz kontu-hartzaile lanpostuak, betiere foru lege honetako xedapenekin bat, zer ezaugarri izanen dituen hizkuntza eskakizunari dagokionez, eta lanpostu horiek betetzeko prozedurek ezaugarri horietara egokitu beharko dute.”

Zioak: Foru lege proiektuaren xedea da normalizatzea, Konstituzio Auzitegiaren 2009ko ekainaren 1eko epaia betez, Nafarroako Toki Administrazioak beharrezkoak dituen eginkizun publikoak gauza ditzaketan lanpostuak betetzeko sistema, eta halako lanpostuak dira idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, zeinentzat proposatzen baitugu berriaz arautu daitezela hizkuntza eskakizunaren arloan kontuan hartu beharreko xedapenak.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

243.1. artikuluan “tradiziozko toki batasunek” esapidetik “toki” kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zuzenketa tekniko da, erabiltzen den izendapena izan dadin Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak entitate horietarako erabiltzen duena.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

243.1. artikuluan “eta mankomunitateek” kentzea “lanpostu hori sortzeko” baino lehenago.

Zioak: Asmoa da mankomunitateei buruzko aipamena kentzea; izan ere, batetik, “Nafarroako toki korporazio guztietan” esapiderearen barruan bilduta daude eta, bestetik, legez ezarritako atalase-ira iristen ez diren mankomunitateak ez daude lanpostua sortzeko gaituta.

8. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

243.1 artikuluan, “kontzejuetan” hitzaren ondoren “elkarte tradizionalak eta legezko betebeharririk ez duten mankomunitateetan” dioen testua gehitzea proposatzen da.

Zioak: 1. idatz-zatian “Nafarroako toki korporazio guztietan” esapide orohartzailea erabiltzen denez, salbuetsi egin behar dira idazkari lanpostua izatera behartuta ez daudenak. Halakoak dira kontzejuak, ez baitute idazkari lanposturik izanen; elkarte tradizionalak, gaituta baitaude lanpostua sortzeko baina ez horretara behartuta, konponbidea, 234. 2 c) artikuluan adierazten denez, araudi berekiaren esku uzten baita; eta legez ezarritako atalaseetara iristen ez diren mankomunitateak, zeinak zerbitzu hori emanen baitute partaide dituzten entitateetako bateko langileen bidez.

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

243.1 artikuluari bigarren lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Hona testua: “Zehazki, honakoetan izanen da idazkari lanpostua:

- 2.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietako udaletan.

- Zerbitzu administratiboetarako eraberritatuak eraberritatuak baldin eta elkartutako udalerririk guztien biztanleria 1.000 biztanletik gorakoa baldin bada.

- Mankomunitateetan, baldin eta duten urteko gastu arrunt bateratua 2.000.000 eurotik gorakoa

bada; bost urtez egiaztatu behar da datu hori horrela izan dela.

- Elkarre tradizioan, haien ordenantzetan xedatua baldin badago idazkari lanpostua ohiko sistemaren bidez bete behar dela.

- Kudeaketa integraleko mankomunitateetan, MODALEn jasotakoarekin bat.”

Zioak: Batetik, sistematika hobetzen da, artikulua bakarrean biltzen baitira idazkaritzako lanpostuei buruzko arau guztiak, eta ez proiektuan bezala, non 243. artikulutik 247.era bitartekoetan baitaude banatuta; kontu-hartzaile lanpostuaren gaineko arauak, aldiz, batera daude proiektuan. Beste aldetik, aldaketak sartzen dira idazkaritzako lanpostuak egoteari dagokionez proiektuak proposatzen dituen biztanleria-atalaseetan.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.2 artikuluari beste letra bat gehitzeko zuzenketa:

“c) Mankomunitateetan eta elkarre tradizioan, baldin eta urteko gastu arrunt bateratua hiru milioi eurotik gorakoa izan bada azkeneko bost urteetan.”

Zioak: Asmoa da kontu-hartzailearen figura sartzeari entitate batean baldin eta dituen funtsek eta aurrekontu-egiturak eskatzen badute ezagutza tekniko eta funts horien eta aurrekontu-egitura horren maila bereko kontrola; entitate horietan, beraz, kontu-hartzailearen lanpostua sortzeko edo ez sortzeko erabakiak ez du beren esku gelditu behar.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.3 a) artikuluan “eta hortik beherako biztanleria dutenak ere bai” zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2.000tik gorakoei eta 3.000tik beherakoei eskatu behar zaie adierazten denaren moduko gutxieneko gastu arruntaren baldintza betetzea, baina 2.000 biztanletik beherakoek ez dute gaituta egon behar.

12. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.3 a) artikuluan, “3” urteren ordeztu “5” urte jartzeko zuzenketa.

**ZIOAK: ASMOA DA ZIURTATZEA EZ DELA
EGOERA KOIZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUATURALA IZAN.****13. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.3 a) artikuluan, “1.500.000 euro” ordeztu eta “2.000.000 euro” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak, 1990an, 200.000.000 pezetaren erreferentzia ezarri zuen. Hura gaurko egoerara egokitzen badugu, badirudi gutxieneko zenbatekoak 2.000.000 euro beharko duela.

14. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.3 b) artikuluan, honakoa gehitzeko zuzenketa: “; betiere, azkeneko 5 urteetan 2.000.000 eurotik gorako urteko gastu arrunta egiaztatzen baldin badute”.

Zioak: Ez dute mankomunitate eta elkarte tradizional guztiek egon behar gaituta lanpostua sortzeko, eta asmoa da a) letran behartuta daudenen ondotik, aukerako araubide bat ezartzea, 2.000 biztanletik gorako eta 3.000tik beherako udalen parekoa.

15. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244.3 artikulutik c) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kasu hori iluna da, eta ez da bereizi behar 2. idatz-zati horretako b) letran jasotakoetatik.

16. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244. bis 1 a) artikuluan, “10.000” biztanleren ordeztu “5.000” biztanle jartzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak ezartzen zuen erreferentzia hori jada 1990ean, eta ikusita ordutik hona nola handitu diren toki entitateen aurrekontuak eta zer konplexua den kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa, kualifikazio hori eskatu beharra dago 5.000 biztanletik gorako udaletarako.

17. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244. bis 1 a) artikuluan, “eginkizun askotarako mankomunitateetan” jarri ordeztu, “MODALen aurreikusitakoaren arabera sortutako kudeaketa integralko mankomunitateetan” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Asmoa da testuari segurtasun juridikoa ematea; izan ere, “eginkizun askotarako mankomunitatea” ezin da inongo kategoria juridikotan sailkatu, eta kontzeptu juridiko zehaztugabe bat da, hartuko lituzkeena ur hornidurako zerbitzua ematen duten mankomunitateak, saneamenduko zerbitzua ematen dutenak, etab.

Enmienda núm.18

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

244. bis 1 a) artikuluan, “hala jasota baldin badago tokian tokiko plantilla organikoan” jarri ordeztu, “244. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran aipatzen direnetan hain zuzen” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Asmoa da sistemari koherentzia ematea, eta A mailako kontu-hartzaileak eskatzea entitate-rik handienetarako.

19. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

244.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«b) “B mailako” kontu-hartzailea.- Nafarroako gainerako toki entitateetan, plantilla organikoan nahitaez edo borondatez lanpostu hori agertzen bada. Hala ere, toki entitateek, beren borondatez, lanpostua “A mailakoa” izanen dela ezar dezakete beren plantilla organikoetan.

Zioak: Toki entitateei aukera ematea, gutxieneko exijentzia bat abiapuntu hartuta, autonomiaz erabaki dezaten, eta dituzten beharren arabera, ea kualifikazio profesional handiagoa nahi duten kontu-hartzaile lanpostuarentzat.

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

245.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Nafarroako toki entitateetako idazkariaren edo kontu-hartzailearen izaera eskuratzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza lortzea.”

Zioak: Iruñeko idazkari lanpostua betetzeko sistemaren berezitasun salbuespenezkoa ez dago justifikatuta, are gutxiago lanpostu hori beti bete izan denean Nafarroako Gobernuaren gaikuntza zuten langileekin.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

245,1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Nafarroako toki entitateetako idazkariaren edo kontu-hartzailearen izaera eskuratzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen duen gaikuntza lortzea.”

Zioak: Iruñeko idazkari lanpostua betetzeko sistemaren berezitasun salbuespenezkoa ez dago justifikatuta, ez baitago inongo alderik Iruñeko idazkariaren eginkizunen eta gainerako toki entitateetako idazkariaren eginkizunen artean, eta lanpostu hori beste idazkari lanpostuak betetzeko erabili izan den sistema berarekin bete izan da.

22. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

245.2 artikuluan, 2. idatz-zatiko azkeneko esaldia kentzea; honakoa, hain zuzen: “Oposizio-lehiaketa eginez gero, oposizioaldia lehiaketaldiaren aurretik egiten ahalko da”.

Zioak: Asmoa da izangaiek, oposizioaldian lehiatu aurretik, ongi baloratzea dauzkaten aukerak, eta, aukerarik ezean, ahaleginik ez egitea erabaki ahal izatea.

23. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

245.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. Deialdien oinarriak, bai eta programak eta merezimenduen baremoak ere, Toki Administrazioaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak onetsiko ditu, Toki Administrazioaren ordezkarien eta Nafarroako Idazkariaren, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoko ordezkarien parte-hartzearekin.

Elkargoko ordezkariak egoteko beharra epai-mahaiei buruzko xedapenetara ere zabaltzen da”.

Zioak: Nafarroako Idazkariaren, Kontu-hartzailearen eta Diruzainen Elkargoa Nafarroan bakarrik dagoen erakundea da, eta indartua izan behar lukeen berezko ezaugarria da hori.

24. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

245.3 idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

245. artikulua. Gaikuntza lortzeko deialdiak.

“3. Deialdiotako oinarriak, bai eta programak eta merezimenduen baremoak ere, toki administrazioaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak onetsiko ditu, administrazioaren ordezkarien parte-hartzearekin eta idazkariaren, kontu-hartzaileen eta diruzainen Nafarroako ordezkariak handiena duen erakundearen parte-hartzearekin, Nafarroako Administrazio

Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritako determinazioekin bat”

Zioak: Uste dugu Nafarroako idazkarien, kontuhartzaileen eta diruzainen ordezkariak handieneko erakundeak parte hartu beharra daukala gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen eta graduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

25. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

245.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“3. Deialdien oinarriak, programak eta merezimenduen baremoak Nafarroako Gobernuan Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak onetsiko ditu, Toki Administrazioaren ordezkarien parte-hartzearekin eta Nafarroako Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoko ordezkarien parte-hartzearekin, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Sarrera Erregelamenduan ezarritako determinazioekin bat”

Zioak: Komenigarria da Nafarroako Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoak parte hartzea gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

26. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“246. artikulua. Epaimahaiak.

Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu hautapen probak kalifikatzeaz eta, hala behar bada, baremoak aplikatzeaz eta prestakuntza ikastaroak ebaluatzeaz arduratuko diren epaimahaiak. Epaimahaietan Nafarroako toki entitateen ordezkariak eta Nafarroako idazkarien, kontuhartzaileen eta diruzainen ordezkariak handieneko erakundearen ordezkari-

ak izanen dira, deialdietan ezartzen denaren arabera”

Zioak: Uste dugu Nafarroako idazkarien, kontuhartzaileen eta diruzainen ordezkariak handieneko erakundeak parte hartu beharra daukala gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen eta graduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

246 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu hautapen probak kalifikatzeaz eta, hala behar bada, baremoak aplikatzeaz eta prestakuntza ikastaroak ebaluatzeaz arduratuko diren epaimahaiak. Epaimahaietan izanen dira Nafarroako toki entitateen ordezkariak eta Nafarroako Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoaren ordezkariak, deialdietan ezartzen denaren arabera”

Zioak: Komenigarria da Nafarroako Idazkarien, Kontuhartzaileen eta Diruzainen Elkargoak parte hartzea gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

28. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (bis) artikuluari, gaztelaniazko izenburuan, “participar” hitzaren ondotik “en las” gehitzeko zuzenketa.

Zioak: Akats zuzenketa bat da.

29. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (bis) artikuluan, azken zatia kentzea; hau da, “edo Soziologiako lizentzia edo Zientzia Politikotako eta Soziologiako lizentzia”

Zioak: Tokiko kudeaketak gaur dituen eskakizunak kontuan hartuta, asmoa da baliagarritasuna ezagutzea lanpostu horretarako maila egokia duten tituluei.

30. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

246 (bis) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Nafarroako toki entitateetako idazkari lanpostuetan sartzeko eta gaikuntza lortzeko probetan parte hartzen ahalko dute egiaztatzen dutenek, kasuan kasuko deialdian eskabideak aurkezteko finkatzen den epea bukatzen den mementoan, Zuzenbideko lizentzia dutela, edota gaur egungo araudi akademikoaren aldaketaren ondorioz horren balio berekotzat jotzen den titulua.”

Zioak: Legeak idazkariaren eginbehartzat jotzen ditu fede publiko administratiboa eta aginduzko lege-aholkularitza, eta bi eginkizun horiek Zuzenbideko lizentzia dutenen eginkizunak dira berez, ez beste inorenak. Zientzia Politikoetako eta Administrazioaren Zientzietako lizentzia dutenek edo Soziologiako lizentzia dutenek edota Zientzia Politikoetako eta Soziologiako lizentzia dutenek ez dute eginkizun horietarako berariazko gaikuntza profesionalik, eginkizun juridikoak baitira funtsean. Idazkariari, gainera, kontu-hartzailerik ez dagoen toki korporazioetan, eta lanpostu horretarako ez dira onartzen ez Zientzia Politikoetako eta Administrazioaren Zientzietako lizentzia, ez Soziologiako lizentzia, ez Zientzia Politikoetako eta Soziologiako lizentzia ere, eta bai, aldiz, zuzenbide lizentzia besteak beste.

31. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (bis) 2. artikuluko 2. idatz-zatian “Zuzenbideko lizentzia” kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko kudeaketak gaur dituen eskakizunak kontuan hartuta, asmoa da baliagarritasuna ezagutzea lanpostu horretarako maila egokia duten tituluei.

32. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (bis) artikuluko 3. idatz-zatian, “ikasketa tituluren bat” eta gero, “Zuzenbideko lizentzia” gehitzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko kudeaketak gaur dituen eskakizunak kontuan hartuta, asmoa da baliagarritasuna ezagutzea lanpostu horretarako maila egokia duten tituluei.

33. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (ter) artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Idazkari edo kontu-hartzaile izateko eus-kara jakitea nahitaezkoa duen lanpostua lortu dutenek ezinezkoa izatea beste edozein lanpostu huts betetzeko prozesuetan parte hartzea ez dator bat Espainiako Konstituzioaren 23.2 eta 103.3 artikuluekin, eta hori hizkuntzan oinarritutako bazterkeria erabatekoa da.

34. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

246 (ter) artikuluko 2. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Justifikaziorik gabe murrizten du funtzionarioek mugitzeko eta karrera profesionala izateko duten eskubidea.

35. ZUZENKETA

NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

246. (ter) artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: 234.3 artikuluekin kontraesanean dago, non arautzen baita lanpostuaren erreserba duten lanpostu hutsak nola bete. Artikulu hau sartzek, eta xedatutakoaren izaera orokorrak, bitarteko idazkariaren talde bat sorraraziko luke beste behin ere: zuzenean Toki Administrazioaren

Departamentuaren pean egongo liraterkeen idazkarien talde bat.

36. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

247.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Gaituta dauden funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko modu arrunta merezimendu lehiaketak izanen dira, eta lehiaketa horiek Toki Administrazioaren arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuko departamentuak deitu beharko ditu. Lehiaketa horien deialdia hiru urtean behin eginen da, gutxienez.”

Zioak: Iruñeko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua betetzeko sistemaren berezitasun salbuespenezkoa ez dago justifikatuta, ez baitago inongo alderik Iruñeko idazkariaren eginkizunen eta gainerako toki entitateetako idazkariaren eginkizunen artean, eta lanpostu hori beste idazkari lanpostuak betetzeko erabili izan den sistema berarekin bete izan da.

37. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

247. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

247. artikulua. Lanpostuak betetzeko sistema, lanpostu hutsak zehaztea:

“2. Foru gaikuntza duten funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hutsak izanen dira ondortik azaltzen diren egoeretako batean daudenak, funtzionario araubidean beteta ez badaude eta haien gainean lanpostua gordetzeko eskubideren bat ez badago:

a) Idazkari lanpostuak:

Nafarroako udal guztietan.

Existitzen diren zerbitzuen elkarte guztietan.

Plantilla organikoan idazkariaren lanpostua berariaz sortu duten mankomunitateetan”

Zioak: Foru legearen proiektuak proposatzen duen testuak erabat kontra egiten dio 234., 238.2 eta 243.1 artikuluetan ezarritakoari; izan ere, artikulua horietan xedatzen denez, interes publikoko

eginkizuna da, beharrezkoa, eta horretarako gaitutako langile funtzionarioentzat eta ez beste inorenzatzat dago erreserbatua.

Populazio maila batera iristen ez diren entitateei ez bazaie lanpostu horiek betetzen uzten, konpondu gabe utziko dira, berriro ere, Nafarroako Toki Administrazioan orain dela hogeita lau urtetik hona dauden anormaltasunak.

38. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

247.2.a) artikulua ordez, beste testu hau jarrezko zuzenketa:

“a) Idazkari lanpostuak: 243. artikuluan ezarritakoari jarraikiz nahitaezkoak direnak”

Zioak: Asmoa da kontu-hartzaile lanpostuaren pareko araubidea ezartzea, eta testua sistematiko ki hobetzea.

39. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

247.3 artikulua kentzeko zuzenketa.

3. idatz-zatia kentzea proposatzen da.

Zioak: Idatz-zati horren edukia 248.3. eta 251. artikuluen aurkakoa da, eta prozesu ireki eta kontrolaezina eragiten du.

40. ZUZENKETA

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

247. artikuluan beste idatz-zati bat, laugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“4. 800 biztanle edo gutxiago dituzten udaletan, eta dagoeneko existitzen diren zerbitzuen elkarteetan, baldin elkartutako udalen populazioak guztira 600 biztanle edo gutxiago egiten badu, lanpostu hutsak beteko dira behin-behineko funtzionario bat izendatuz, 245. artikulua aipatzen duen gaikuntza lortutako izangaien artetik”

Zioak: Behin-behineko destinoa duen funtzionarioaren figura ez da arrotza gure legedian, eta Estatuko Administrazioa berrantolatzeko prozeduratan erabili izan da. Izendapenaren behin-behine-

kotasunak, eginkizunon etorkizuneko berrantolatze administratibo bat ez hipotekatzeaz gainera, ekidin egiten du ukitutako toki entitateek eta eginkizunak bertan bete behar dituzten langileek kalte bidegabeak izatea.

41. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

248. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“.. Iruñeko Udalarari eskatuko dio adieraz dezatela lanpostu horiek lanpostuak betetzeko sistema arruntean sartu nahi dituztela.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat.

42. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

248. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran, gaztelaniazko testuan, “sean incluidos” kendu eta horren orde “sea incluido” jartzeko zuzenketa.

Zioak: Gure aurreko zuzenketarekin bat.

43. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

248.1.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“b) Mankomunitateei eta, 247.2.a) eta 244.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak sortzeko ahalmena duten gainerako toki entitateei eskatuko die lanpostu horiek badaudela adieraz dezatela, eta, orobat, tradiziozko toki entitateei eskatuko die adieraz dezatela lanpostu horiek lanpostuak betetzeko sistema arruntean sartu nahi dituztela.”

Zioak: Iruñeko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua betetzeko sistemaren berezitasun salbuespenezkoa ez dago justifikatuta, ez baitago inongo alderik Iruñeko idazkariaren eginkizunen eta gainerako toki entitateetako idazkariaren eginkizunen artean, eta lanpostu hori beste idazkari lanpostuak

betetzeko erabili izan den sistema berarekin bete izan da.

44. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

248. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra osorik kentzeko zuzenketa.

Zioak: Elkarrekin ezin daitezke borondatezkoak izan baldin eta bilatzen dena bada Nafarroako Toki Administrazioaren zerbitzu administratiboaren mapa orokor koherente bat.

45. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

248. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran testu hau kentzeko zuzenketa:

“247.2. a)”

Zioak: Idazkari lanpostuaren gaineko arau guztiak 243. artikulura pasa dira, eta, gainera, aurreko zuzenketa batean, lanpostu hori sortzeko ahalmen guztiak ezabatu egin dira.

46. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

248. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“d) Eremu euskalduneko toki entitateetako idazkaritzako eta kontu-hartzaileetako lanpostuetan, euskara jakitea nahitaezkoa da. Eremu mistoko eta Nafarroako gainerako zatian, epe bat emanen da kasuan kasuko hizkuntza eskakizuna zehatz dadin, eta, ezarritako epean ez badute jakinarazten, ez da nahitaezkotzat joko, bai ordea merezimendu gisa hartuko. Toki entitate elkartuetan hizkuntza eskakizuna entitatearen egoitza duen toki entitateari dagokiola ondorioztatuko da.”

Zioak: Euskara Nafarroako hizkuntza ofiziala da. Testu ofizialak mugatu egiten du herritarrek beren hizkuntzan zerbitzatuak izateko duten eskubidea, eta, beraz, bizitokia edozein dutela ere Administrazioak berdina trata ditzan duten eskubidea.

47. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

249. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatien artean beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

249. artikulua. Lehiaketetan parte hartzea.

“Foru gaikuntza duten funtzionarioak, baldin eta behin-behineko destinoa badute 800 biztanle edo gutxiago dituzten udaletan, edota dagoeneko existitzen diren zerbitzuen elkarteetan, baldin elkartutako udalen populazioak guztira 600 biztanle edo gutxiago egiten badu, behartuta daude behin betiko izendapena lortzeko deitzen diren lehiaketetan parte hartzera, eta horrelako lehiaketetan beti hartuko dute parte baldin eta destinoa zer udaletan duten udal horiek idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuak partekatuta izanen dituztela erabakitzen bada, nahiz eta horrek ez dion kalterik eginen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuko hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari.”

Zioak: Modu horretan, behin-behineko destinoa duten funtzionarioak beren behin betiko destinoa lortzen joanen dira, eta, era berean, berrantolatze administratiboa gutxika-gutxika baina etenik gabe gauzatzen da.

48. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

250. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Eremu mistoko eta Nafarroako gainerako lurraldeko toki entitateetan, euskaraz jakitea nahitaezkotzat jotzen ez bada, eta merezimendu kualifikatutzat hartzea erabaki badute, haren balorazio osagarria merezimenduen baremoaren guztirako puntuazioaren %20koa izanen da eremu mistoan eta %10ekoa Nafarroako gainerako toki entitateetan.”

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatean, hizkuntz normalizazioak eskatzen du administrazio publiko-
ei behar diren tresnak ematea herritarrak euskaraz zerbitzatu ahal izateko.

49. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

251. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“251. artikulua. Epaimahaiak.

1. Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketak ebazteko ardura duten epaimahaietan toki entitateen ordezkariak parte hartuko dute, eta Nafarroako idazkariak, kontu-hartzaileen eta diruzainen ordezkariak handieneko erakundearen ordezkariak ere bai. Epaimahai horietako kideak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu.”

Zioak: Uste dugu Nafarroako idazkariak, kontu-hartzaileen eta diruzainen ordezkariak handieneko erakundeak parte hartu beharra daukala gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen eta graduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

50. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA**

251.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuak betetzeko merezimendu lehiaketak ebazteko ardura duten epaimahaietan toki entitateen ordezkariak parte hartuko dute, eta Nafarroako Idazkariak, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoko ordezkariak ere bai. Epaimahai horietako kideak Toki Administrazioaren arloan eskumena duen departamentuak izendatuko ditu.”

Zioak: Komenigarria da Nafarroako Idazkariak, Kontu-hartzaileen eta Diruzainen Elkargoak parte hartzea gaitasuna lortzeko deialdien oinarrien prestaketan, bai eta hautaprobetan notak jartzeaz nahiz merezimenduen lehiaketak ebazteaz arduraztzen diren epaimahaietan ere.

51. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

253. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

“253. artikulua. Ordainsari osagarriak.

“Foru gaikuntza duten funtzionarioen ordainsari osagarriak kasuan kasuko toki korporazioak finkatuko ditu, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua ezartzen duen arauarekin eta horren garapen-xedapenekin bat”

Zioak: Ezin da onartu aurkeztutako lege-testuak toki entitateek berezkoa duten eskumen-eremuan eragitea, eta ukatzea entitateok autogobernura duten gaitasuna eta beren interes publikoak kudeatzeko dituzten eskurantzak; edo, bestela esanda, ezin da onartu toki entitateen autonomia inongo justifikaziorik gabe inbaditzea.

52. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

254. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran, “diziplina espedienteak irekitzeko ahalmena Toki Administrazio zuzendari nagusiari dagokio” kendu eta, horren ordez, beste testu hau jartzeko zuzenketa: “diziplina espedienteak irekitzeko ahalmena izanen dute Alkateak eta Toki Administrazio zuzendari nagusiak.”

Zioak: Asmoa da alkateari ere ematea arau-hauste larriengatik diziplina espedientea irekitzeko ahalmena, zeina, proiektuan, Toki Administrazio zuzendari nagusiari bakarrik ematen baitzaio; eta logikoa dirudi, kontuan hartuta agintari horrek funtzionarioarekin duen lotura administratiboa.

53. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

254. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran, “toki entitateko osoko bilkurari” gehitzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“Arau-hauste larriengatik zehapenak jartzea dagokie toki entitateko osoko bilkurari eta toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularrari”

Zioak: Asmoa da arau-hauste larriengatik zehapenak jartzeko ahalmena zabaltzea eta ahalmen hori kasuko toki entitatearen osoko bilkurari ematea, zeina, proiektuan, toki administrazioaren arloan eskumena duen departamentuko titularrari bakarrik ematen baitzaio. Zabaltze logikoa dirudi, kontuan hartuta arau-hauste larriengatik jar daitezkeen zehapenek duten lotura administratiboak ez dituela ukitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari erreserbatutako eskumenak lanpostuen betetzeari dagokionez. Gainera, gaztelaniazko testuan, “del (la)” bezalako formula desegokiaren ordez “de la persona” jartzea proposatzen dugu.

54. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO**
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

254. artikuluko 2. idatz-zatiko c) letran, gaztelaniazko testuan, “Así mismo será competencia del (la)” kendu eta, horren ordez, beste testu hau jartzeko zuzenketa:

“.. Será competencia de la persona...”

Zioak: Gure aurreko zuzenketarekin bat, asmoa da testua moldatzea eta hona ekartzea zuzenketa horretan proposatutako estilo zuzenketa.

55. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-**
NAFARROAKO EZKER BATUA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

258. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da inondik ere beharrezkoa poliziarri buruzko berariazko legedira igorpenik egitea, baina gainera agintea erabiltzeko ahalmena soilik polizien esku uztea okerra da, ahalmen hori beste funtzionario batzuek ere erabil baitezakete.

56. ZUZENKETA**NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapen horren oinarria egitate zirkuntziazial bat da, populazio atalask ez gainditzea hain zuzen, eta hori ez da justifikazio nahikoa. Gainera, eta lehenbizikoz, figura berri bat sortzen du, nola baitira udalen nahitazko elkarteak, eta hori

6/1990 Foru Legean ezarritako borondatezkotasunaren printzipioaren aurkakoa da.

57. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriko oraingo 1. idatz-zatian "hiru" kendu eta, horren orde, "bost" jartzeko zuzenketa.

Zioak: Asmoa da Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko mapak ezarritako markoan udal-lek beren borondatez elkartzeko izanen duten epea handitzea.

58. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriari beste 1. idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa; hona testua:

"Zerbitzu administratiboen elkarrekin eratu dira Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen arabera. Mapa hori diseinatzean kontuan hartuko dira eraginkortasun eta efizientzia administratiboko irizpideak eta lurraldearen antolamendukoak, eta hilabeteko epean toki entitateei kontsulta egin ondoren, foru lege onetsiko da."

Zioak: Asmoa da aurreikustea nola onetsiko den berrantolaketa administratibo guztirako baliagarria izanen den erreferentzia markoa.

Enmienda núm.59

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiari beste lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Honakoa da testua:

"Udal idazkari edo kontu-hartzaile lanetan aritzeko gaikuntza 1983an edo lehenago, garai hartan indarra zuen araudiaren arabera, jaso zutenak, foru lege honek indarra hartzen duen egunean lanpostu horretan bitarteko izaeraz ari baldin badira hamabost urtez geroztik gutxienez, ulertuko da idatz-zati honetan araututako gaikuntzaren jabe direla, eta hurrengo idatz-zatietan araututako lehiaketetara aurkeztu ahal izanen dira"

Zioak: 1990 baino lehenagoko araudiaren arabera gaikuntza prozesua gainditu eta kargu hori bete duten langileen egoera aurreikustea. Kontuan harturik bere garaian frogatu zutela euren gaitasuna, ez dirudi bidezkoa denik tratamendu bera ematea horiei eta azterketa hori, Foru Diputazioak 1983tik aurrera deitu ez duena, egin ez dutenei.

60. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiko honakoa kentzeko zuzenketa: "...Nafarroako Gobernuak baimena izanen du beharrezkotzat jotzen dituen udal batasunak sortu edo aldatzeko, horietan guztietan ahalbidetzeko idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuak funtzionario batek egiten dituela." Horren orde, testu hau proposatzen da:

"... Nafarroako Gobernuak sortu egiten ditu edo aldatu, existitzen badira, Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen ondoriozko udal elkarrekin, eta horretarako oinarri hartuko du udal-lek bost urteko epean beren borondatez egiten duten proposamena, eta, behin epe hori pasata, elkarrekin horiek derrigorrez gauzatu dira, ahalbidetzeko, era horretan, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuak funtzionarioek emanak izanen direla elkarrekin horietan guztietan foru lege honetan ezarritako moduan.

Zioak: Aurreko zuzenketa batekin bat.

61. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Iruña salbuespen izatea onartzen ez duten aurreko zuzenketekin bat.

62. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarritik a) letrako hirugarren puntua –bi lerrokadak– kentzeko zuzenketa:

“Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean betetzea (...) zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan”

Zioak: Aurreko araubideari gehitu zaion berrikuntza horren helburu bakarra da Iruñeko Udalak aukera izan dezala horrelako lanpostu garrantzitsua behin-behinekoz betetzeko, zeinak profil profesionala eta independentea izan behar baitu.

63. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarritik d) letrako hirugarren puntua –bi lerrokadak– kentzeko zuzenketa:

“Foru gaikuntza duten funtzionarioen artean betetzea (...) zerbitzu berezien egoeran geldituko da jatorriz duen lanpostuan”

Zioak: Aurreko araubideari gehitu zaion berrikuntza horren helburu bakarra da Iruñeko Udalak aukera izan dezala horrelako lanpostu garrantzitsua behin-behinekoz betetzeko, zeinak profil profesionala eta independentea izan behar baitu.

64. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko hamaseigarren xedapen gehigarriko 2. idatz-zatiko a) eta d) letrako kendu egiten dira”

Zioak: Iruñeko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostua betetzeko sistemaren berezitasun salbuespeneko ez dago justifikatuta, ez baitago inongo alderik Iruñeko idazkariaren eginkizunen eta gainerako toki entitateetako idazkariaren eginkizunen artean, eta lanpostu hori beste idazkari lanpostuak betetzeko erabili izan den sistema berarekin bete izan da.

65. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 46. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiek testu berria izanen dute. Hona:

“2. Elkarte horiek foru lege sortu beharko dira, salbu eta zerbitzu administratiboetarako elkarten kasuan, zeinak foru dekretuz sortzen ahalko baitira, betiere Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen arabera.

Elkarteak sortzean, zehaztu egin beharko dira izena, buru eginen duen udala, zer osaera eta funtzionamendu izanen duten bere gobernu-organok, zeinek ordezkaturiko baitituzte elkartutako udalak, zer eskumen eta baliabide esleituko zaizkien, eta zer ahalmen izanen zaizkien aplikatzekoak.

Aurreko lerrokadak aipatzen dituen udal-elkarteetan burutza izanen duen udala aukeratzekoan, funtzionaltasun irizpideei begiratuko zaie, hala nola zeinek duen biztanle kopururik handiena edo zein den elkartutako udalen arteko erdigunetik hurbilen dagoena.

3. Nafarroako udalek zerbitzu administratiboetarako elkarteak eratuko dituzte, Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen arabera; elkarte horien antolamendua eta funtzionamendua beren estatutuetan ezarritakoaren arabera gauzatu dira, eta subsidiarioki elkarten araubide orokorra aplikatuko zaie.

Baldin eta administrazio zerbitzuetarako elkarte bat, 3.1.d) artikuluan aipatzen direnetakoa, eratu gogo duten udalak partaide badira edo sartuak badaude lege edo borondatez sortutako elkarte batean, gutxienez ere beharrezkoak diren tokiko funtzio publikoko lanpostuei eutsi ahal izateko, elkarte haren esparruak bat etorri beharko du, gutxienez, haren baitan sartutako udalarekin, non eta Nafarroako Gobernuak beste zerbaitetarako baimena ematen ez duen Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen markoan.

Nolanahi dela ere, administrazio zerbitzuetarako elkarte bat eratzen bada xede horretarako sortu edo eratutako entitateetako kide diren udalen artean, entitate horiek desegin eginen dira eta, kasu bada, elkarte hartan sartuko dira une horretan kargu horiek betetzen ari diren funtzionarioak.

Elkarte horien toki entitate izaerak bidea ematen du bere gain har dezaten, beren estatutuetan ezarritako moduan betiere, estatutuetan erabakitzen diren udal eskuduntzen erabilera konpetentziala.”

Zioak: Talde honek proposatutako beste zuzenketa batzuen ondoriozko testuarekin bat, aldatu egin behar dira Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko 46. artikuluko 2. eta 3. idatzizatiak, Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko maparen aipamena egiteko eta zerbitzu administratiboetarako elkarteak nahitaezkoak direla ezartzeko.

66. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat.

67. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dago horren batere beharrik; arau juridiko baten indarraldiak, orokorrean, irauten du beste arau batek aldatzen edo indargabetzen duen arte.

68. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorraren ordezt, beste testu hau jartzeko zuzenketa:

“2011ko urtarrilaren 31 baino lehen, Nafarroako Gobernuak Parlamentura lege proiektu bat igorriko du, Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko mapari buruzkoa, zeina irakurketa bakarrek proposaturaren bitartez izapidetuko baita.

Proiektu horrek gutxienez ere hiru egituratze maila jasoko ditu: udala, zerbitzu administratiboetarako elkarteak eta mankomunitateak. Era berean, zehaztu egingen du horietako bakoitzaren izaera

orientatzailea edo loteslea, eta izaera hori aldi baterako edo behin betiko den.”

Zioak: Proiektuan bildu den proposamena ekarpen hutsala da, adierazpen hutsa besterik ez, eta, gainera, talde honek proposatu dituen aurreko zuzenketak kontuan hartuta, ez du zentzurik. Horregatik, eta talde honek aurretik aurkeztutako zuzenketekin bat, egin behar dena da zehaztu zer epetan egon beharko duen beteta erreferentziako mapa onestearen betebeharrak, beharrezkoa baita elkarte berrantolatze prozesu guztirako, bai eta bestelako prozesu batzuetarako ere, non, halaber, koherentziaz eta etorkizunari begira jarduten hasi behar baita.

69. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 253. artikuluari zuzenketa aurkeztu dioneguz, bigarren xedapen iragankorrak ez du zentzurik, artikulua horren ondorio baita.

70. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorrean, “Foru lege honen 253. artikuluan xedatutakoa gorabehera” ordezt, beste testu hau jartzeko zuzenketa:

“Foru lege honek 6/1990 Foru Legeko 253. artikuluari eman dion testuak xedatutakoa gorabehera.”

Zioak: Foru lege honek ez ditu 253 artikulua. Saiatu gara aurreko zuzenketen bidez akatsa zuzentzen; besteak beste, foru lege hau artikulua bakarrek dela dioen zuzenketaren bidez.

71. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostu hutsak betetzeko salbuespenezko prozesu

bat jarriko du abian udaletan, mankomunitateetan, elkarte tradizioaletan eta zerbitzu komunetarako osatutako udal-elkarteetan, hurrengo idatz-zatietan adierazten den moduan:

1. Deitutako lanpostu hutsak bete aurretik eginen da Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako toki entitateetako idazkari edo kontu-hartzaile izateko ematen duen gaikuntza lortzeko prozesua ; gaikuntza eskuratzeko, oposizio-lehiaketa bateko hautaprobak gainditu beharko dira, zeinak Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen programen eta merezimendu baremoaren araberrakak izanen baitira.

2. Proben edukiak lotura izanen du deialdiko lanpostuan ohikoak diren prozedurekin, lanekin eta eginkizunekin. Lehiaketa fasean, beste merezimendu batzuen artean, baloratuko dira izangaiak administrazio publikoetan emaniko zerbitzu-denbora eta deialdiko lanpostuetan duen esperientzia”

Zioak: Proposatzen den testu berri honek bidea ematen du, erabat errespetatuz Konstituzio Auzitegiaren epaia eta lege-doktrina, burutzeko 11/2004 Foru Legearen babesean abian jarritako prozesua, oraindik amaitu gabe baitago.

72. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorraren orde, beste testu hau jartzeko zuzenketa:

“1. Foru lege honen indarraldiko lehenbiziko bost urteetan egiten diren idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuak betetzeko deialdietan sartuko dira lanpostu hori berez izan behar duten udaletako lanpostu hutsekin batera, , halaber, Nafarroako toki entitateen egitura antolatzeako mapa aplikatuz beren borondatez eratu diren elkarteetakoak.

2. Dela idazkaritzako dela kontu-hartzailetzako lanpostua betetzeko lehenbiziko deialdia gutxienez sei hilabeteko aurrerapenez eginen da, eta probak 2012an izanen dira.

Deialdi horietan, lehiaketak puntuazio guztiaren % 40ko balioa izanen du gehienez, eta ehuneko hori lortzen ahalko da deialdiko lanpostuaren moduko karguan gutxienez hamasei urtez etenik gabe arituta.”

Zioak: Aurreko testua kendu egiten da, kanpoan utzi nahi baitzituen “ex lege” izendapenarekin ezagutzen diren idazkariak, eta gai honetan

Gobernuak egin behar duena da 11/2004 Foru Legea, Parlamentuak onetsia, bete, eta idazkari horiei lanpostuak esleitu.

73. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Laugarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa, laugarrena. Testu hau izanen du:

“Laugarren xedapen iragankorra.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, salbuespenez, behin bakarrik eta lanpostu hutsak deklaratzeko prozesua hasi aurretik, erretiro aurreratua eskainiko die azken prozesuan gaikuntza lortu bai baina lege-debekuagatik lanpostua jabetzan hartu ezin izan dutenei.

Era berean, eta salbuespenez hau ere, bitarteko langileen antzinasun handiaren aitorten gisa, eta langile horietako ahalik eta gehienei aukera emateko lanpostu finkoak eskura ditzaten, Nafarroako Gobernuak langile titularrei eskainiko die erretiro aurreratua hartzea, aurrekoentzat ezartzen diren baldintza beretan; betiere, 30 zerbitzu-urte egin dituztela eta 60 urte bete dituztela egiaztatu beharko dute.

Zioak: Proposamenak prozedura bat taxutzen du sortu diren bitarteko kontratu luzeen egoera konpontzeko eta egoera horien aitortpena egiteko, halako moduz non aukera ematen baitu egoera desblokeatzeko eta gaur egun hamar urte baino gehiago daramatzaten bitarteko langileen lanpostuak eskaini ahal izateko. Era berean, neurri honekin ekidin egiten dira errekurtsioak jartzeko bidea emanen luketen egoerak, eta halako errekurtsioak izan dira aurrekoetan gaikuntza prozesuak abian jartzea blokeatu dutenak; bidea emanen luke, bestalde, lehenbiziko deialdian lanpostu gehiago eskaintzeko.

74. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Indarrean jarraituko du, erabat betetzen den arte, 11/2004 Foru Legeko lehenbiziko xedapen gehigarriko lehenengo idatz-zatiko hirugarren lerrokadan ezarritakoak”

75. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Testu artikuludunaren hasieran honako testua gehitzeko zuzenketa:

“Artikulu bakarra.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko VII. tituluak testu berria du. Hona: I. KAPITULUA Xedapen Orokorrak”

Zioak: Zuzenketa teknikoak.

76. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko 5. lerrokadako 7. zehaztapenetik “eta araubide hori eguneratzen” kentzea proposatzen da.

Zioak: Kasuko artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin bat, horren bidez proposatzen baitugu aukera ezabatzea Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurako idazkaria aldi baterako eta zuzenean izendatzeko, zioen azalpenean “eguneratu” esaten diotena.

77. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko azkeneko lerrokadaren ordez beste hau jartzeko zuzenketa:

“Bereziki azpimarratzekoa da lehenbiziko xedapen iragankorrean ezarritakoa, hau da, Nafarroako Gobernuak 2011ko urtarrilaren 31 baino lehenago Parlamentuan foru lege proiektu bat aurkeztu beharko duela, berrantolatuko duena Nafarroako toki entitateen egitura ordenatzeko mapa (MODAL) XXI. menderako, non gutxienez hiru maila agertuko baitira: udalak, zerbitzu administratiboetarako elkarteak eta mankomunitateak. Lege horrek erreferentzia izan eta balio beharko du koherentzia emateko Nafarroako udaletako oinarritzko lanpostuak betetzeko sistema osoari.”

Zioak: Kasuko artikuluari aurkeztu diogun zuzenketarekin bat, zeinaren bidez proposatzen

baitugu eduki hori izanen duen foru lege proiektu bat aurkez dadila.

78. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean, laugarren lerrokadaren ondotik, lerrokada berri hau gehitzeko zuzenketa.

“Problematika hau guztia konpondu nahi bada, zeina gero eta konplikatuagoa baita denborak aurrera egitearen, arreta administratiborako formulak ugaritzearen eta entitate pribatuak toki kudeaketan parte hartzearen ondorioz, garatu egin beharko dira, nahitaez, lege-aurreikuspenak; bereziki, zerbitzu administratiboetarako elkarteak sortzeko aurreikuspena. Eta hori egin beharko da diseinu-gako saihestezin batzuk oinarri hartuta:

- Interes bakarra izan behar du Nafarroako Toki Administrazioaren antolamendua eta funtzionamendua hobea izateak.

- Administrazio publikoen jardunbidea inspiratzen duten printzipio konstituzionalei jarraitu behar zaie, eta espezializatorako eta profesionalizatorako baldintzak egotea ziurtatu behar da, toki kudeaketako benetako lan-taldeen konfigurazioa abiapuntu.

- Ziurtatu behar da udal oro egonen dela beharrezkoak dituen baliabide pertsonalez eta materiallez hornituta.

- Konponbideak abiapuntu izan behar du mapa funtzional bat, lurraldean kokatuta gauden modu konplexuari eta gure egitura administratibo konplexuari erantzunen diena, eta, udalei kontsultatu ondoren, egonkorra gertatuko dena.

- Epe bat ezarri behar da eredia nork bere borondatez ezar dezan, eta sustapen neurriak ere bai epe horretan inizatiba hartzen dutenentzat.

- Bideratu beharra dago toki entitateetako langileen eskari zilegiak, bai langile finkoenak bai bitartekoenak, nola baitira egonkortasuna, mugikortasuna eta gora egiteko aukera.

- Neurriak hartu beharra dago dauden problemak arintzeko, eta errazteko gaurko egoeratik etorkizuneko eredurako iragatea errazteko”

Zioak: Komeni da argi adieraztea testu artikuludunak biltzen duen proposamenak zer printzipio dituen abiapuntu.

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer kontrol baliatzen dituen Hezkuntza Departamentuak “Hezkuntza etorkizuna da” goiburupeko iragarkian erreprodizitzen ziren rol sexistak ekidite aldera.

M.ª VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.ª Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer kontrol baliatzen dituen Hezkuntza Departamentuak “Hezkuntza etorkizuna da” goiburupeko iragarkian erreprodizitzen ziren rol sexistak ekidite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamen-

duan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Otsailaren 2an, Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako matrikulazioaren aurreiazko kanpaina aurkeztu zuen. “Hezkuntza etorkizuna da” goiburupean, iragarkian parte hartzen zuten mutikoez eta neskatuek rol sexistak erreproduzitzen zituzten, etorkizuneko edozein proiektioerikiko kontraesan. Iragarkia arratsalde horretan bertan erretiratu zen.

• Hezkuntza Departamentuak zer kontrol baliatzen ditu ekidite aldera auzi hain garrantzitsuetan, esaterako berdintasunaren eta herritartasunaren balioetan sakontzean, gisa horretako gertakariak gerta daitezten?

Iruñean, 2011ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, jakiteko ba al dagoen langabeziaren aurkako neurriei buruzko ebaluazioarik, entitate independenteek egindakorik.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ba al dagoen langabeziaren aurkako neurriei buruzko ebaluazioarik, entitate independenteek egindakorik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, otsailaren 10eko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Langabeziaren egoera asaldagarria da, bai Estatuan bai Nafarroan. Hortaz, ondokoa jakin nahi dugu:

Ba al dago entitate independenteek eginiko ebaluaziorik langabeziaren aurkako 2009ko eta 2010eko neurri deiturikoei buruz, 2011ko urteko neurrien berme gisa balioko duenik?

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta

Galdera, jakiteko noiz betetzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak mendetasuna duten pertsonen aitortutakoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko noiz betetzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak mendetasuna duten pertsonen aitortutakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Mendetasunari buruzko Legea ez da aplikatzen ari legeak xedatzen duen moduan.

Nafarroako Gobernuak noiz betetzeko asmoa du mendetasuna duten pertsonen aitortutakoa?

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko ea zergatik urratu duen Nafarroako Gobernuak 5/2010 Legeak ezarritako epea, legea erregelamendu bidez garatzeari dagokionez, eta zergatik ez den kontseilua deitu.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea zergatik urratu duen Nafarroako Gobernuak 5/2010 Legeak ezarritako epea, legea erregelamendu bidez garatzeari dagokionez, eta zergatik ez den kontseilua deitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteari atxikitako José Andrés Burguete Torres foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak aurrerabi-

de sozial handia ekarri zuen aukera-berdintasunaren aldeko borrokan, eta legea taxutzeko eta onesteko prozesua indar politiko guztien arteko adostasun-ariketa bat izan zen.

Arauaren erregelamenduzko garapena, ordea, ez da ezarritako epean egin –epea iazko urriaren 15ean bukatu zen–, eta irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzeko kontseilua ere ez da epearen barruan eratu. Hori zela eta, Lehendakarietzako kontseilariak agerraldia egin behar izan zuen kasuko parlamentu-batzordean. Beste ez-betetze hau ikusita, gaurkotasun handiko ondoko galdera egiten dugu, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zergatik urratu du, luzaz urratu ere, 5/2010 Foru Legeak legea erregelamendu bidez garatzeko ezarritako epea? Iragan abenduaz geroztik eskatu da, horretarako behar adinako quorumarekin, irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzeko kontseiluak premiazko eta ohiz kanpoko bilera bat egin dezan gai horiek eta beste batzuk eztabaidatzeko. Zergatik ez da bilera hori deitu?

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

